

KOSTU EGITURA:

- Zein dira zuen proiektuaren kosturik garrantzitsuenak?

Gure kosturik garrantzitsuena erreforma egitea izango litzateke. Erreforma egiterakoan, lurzoria zabaldu beharko genuke, tuberiak sartu ahal izateko, mekanismoak funtziona dezan. Langileak kontratatu behar baditugu, haiek ere izango lirateke kostu handi bat.

Langileak honetarako kontratatu beharko genituzke:

- 1- Proiektuaren diseinua egiteko (ordenagailuz).
- 2- Langile espezializatu batek Web orri bat sortzea.
- 3- Informatiko bat beharko genuke Youtuben eta horrelako plataforma digitaletan gure produktua erakusteko.
- 4- Gure bainuen hornitzaile ofizialaren dendan gure produktua ere eskaintzea.
(Gure bainuen hornitzaile ofiziala Roca da.)
- 5- Gure produktua, informatikoak eginiko Web orrian online saltzea beharrezkoa izango litzateke. Online erosi ostean, banku-transferentzia baten bidez ordaindu dezake gure bezeroak eta horren ostean (kostu guztiak barne azken prezioan), bainua garraio enpresa batek eramán ondoren, gure teknikariek (iturginek, langileek...) erreforma egingo lukete eta horrela proiektuaren prozesua amaiturik dagoela esango genuke.

